



ZOZKETA: 1.000 SUPER LK PUNTUKO 50 SORTA

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarrjeta, zk.g., 20500— duenak, 1.000 Super LK puntuko 50 sorta zozkatuko ditu, sustapen baten barruan. Zozketa 2019ko irailaren 28an egingo da.

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere sustapenaren mezu elektronikoa jaso badute eta parte hartzeko inprimakia 2019ko irailaren 21a baino lehen bete badute.

NAN bakoitzeko sari bat baino ez da emango. Zozketa prozedura informatikoen bidez egingo da.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontrataturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- Zozketa

Zozketa 2019ko irailaren 28an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, jakinarazpenean adierazitako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, ordezeko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

3 egun baliouduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago Entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezekoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Super LK fidelizazio-programako 1.000 puntuko 50 sorta zozkatuko dira (sorta bat irabazle bakoitzeko). Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezekoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.